

Rafa Diez aske 30.000 euroko bermea ordainduta



Dantza eta bertsoa izango dira nagusi Lekuona Hotelean

Azken bi urteotan, Ttakin kultur elkarteak eta Lasarte-Oriako Bertso eskolak, Udalaren laguntzaz, bertso saio berezia antolatu dute udaberrian Manuel Lekuona kultur etxean. Aurten, maiatzaren 8an, Lekuona Hotelean dantza topaketa berezia ospatuko da. Ohi bezala, herriko taldeak ikusteko aukera eta sorpresa ugari izango dira bertso saio honetan. /5

Astelehenean Rafa Diez Usabiaga aske geratu zen Baltasar Garzon epaileak ezarritako 30.000 euroko bermea ordaindu eta gero. Auzitegi Nazionalak "egoera pertsonal-familiarragatik" baldintzapean aske utzi zuela adierazi zuen kaleratutako autoan.

Era honetara, Diezek hamabostero eman beharko dio Garzoni amaren berri. Horretaz gain, astean bitan ertzain etxera joan beharko du sinatzera. Halaber, Espainiako Estatutik baimen judizialik barik ezingo da atera.

Garzonek politikan aritzea galerazi dio lasarteoriarrari: "ETAk zuzendutako konplexu terroristarekin lotura duten ekimenetan" parte ez hartzeko agindu dio.

Askatzeko eskaera

Defentsak martxoaren 8an egin zuen Diez aske uzteko eskaera. Aurkeztutako argu-

dioen artean, "mendekotasun egoeran" duen ama zaindu beharra zegoen. Epaileak ontzat eman eta Diezen espetxe egoera «leuntzeko» neurriak hartzea erabaki zuen, Zigor Kodeko eta Auzipetze Kriminaleko Legeko zenbait artikulutan oinarrituta.

Ongi-etorri Rafa

Astearte goizaldean iritsi zen Rafa Diez Lasarte-Oriara. Lagun, ezagun eta herritar ugari bildu zen Xirimiri elkarteko kanpoaldean LAB-eko idazkari nagusi ohiari babesa eta elkartasuna adierazteko. Ongi-etorri guztietan bezala, agurra dantzatu zioten Diezi.

Atxiloketa

Iazko urriaren 13an atxilotu zuten Rafa Diez beste bederatziki kiderekin batera, Batasunaren Mahai Nazional berriaren berrantolaketa prestatzen ari zirela leporatuz. •



Arg.: Josu Agjirretxe

Agurra dantzatu ostean, Rafa Diezi lora sorta eman zioten ongi-etorrian.

Lasarte-Oriako musikarien harrobia

Pianoa eta trikitixa eta panderoa ikasten dauden Udala musika eskolako gaztetxoek erakustaldia eskaini zuten atzo arratsaldean, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Urduritasuna nabari zen ikasle askorengan. Izan ere, emanaldiako parte-hartzaile gehienak aurten hasiberriak dira instrumentua jotzen eta haien lehenengo agerraldia zen ikusleen aurrean. Abesti herrikoiak eta ezagunak entzun ahal izan ziren erakustaldian eta guztien ahalegina eskertu zuen ikusleagoak. •



GIZARTEA/3

Esne gaingabetua eskaintzen du Lasarte-Oriako esne makinak

GIZARTEA/4

Presoen aldeko itxialdiaren hausnarketa

KIROLA/6

Lasarte-Oriak aurrera egin du eskupilotako herriartekoan

Bideo Lagunak

Ez zaitzala harrapatu itzaldi analogikoa !

Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



Neure kabuz



Maiatzak 1

Maiatzak 1, langileen nazioarteko eguna. Aldarrikapenerako sortzen den egun hau bizirik al dago?

Ospakizunaren sorburua 1886ko maiatzaren bata da, egun hartako gertakariak "Haymarket-eko atentatua" eta "Chicagoko martiriak" gogoan Bigarren Internazionalen Biltzar Konstituzionalak 1890. urtetik maiatzaren bata ospatzea erabaki zuen. Eguno egoera eta aldarrikapenak ez dira berdinak. Garai hartan kapitalismoak bere aurpegirik basatienera erakusten zuen, amaigabeko ordutegi eta soldata miseria-bleekin besteak beste. Orain, ordea kapitalismoak bizirik jarrai dezan "neoliberalismoz" mozoarotuta langileria kontrola ahalbidetzen du: lan harremanetan zatiketarik; lehen, bigarren eta hirugarren mailako langileak sortzen dira baliagarri den kontratu mota zenbatezinen eruz; maila ezberdinetako langabetuak ahalbidetu ditu, hiritar eta langileria arteko aldentzea...lan testuinguru honek (kapitalista) beraz ez dute erantzun bakar eta bateraturik ahalbidetzen.

Honetan sindikatuak zatituta, salbuespenak salbuespen, erabat burokratizatuta eta egoera kudeatzaileak, patronalak bihurtu dira.

Aldarrikapen eguna beraz jai eguna bihurtu da askorentzat (kontsumismoa eta "ongizatea"); beste askok ordea (ELKARTASUNA) langileria eta jendartearen kontzientzia eta nortasunean sinetsiz ALDARRIKATZERA kalera irtengo gara.

Ainara Lasar

Zorion-agurrak



Gorka

Zorionak txapeldun! Txokomarrubizko muxu goxo asko eta ondo pasa mahas-pasa!



Alain

Zorionak txapeldun zure 10. urtebetetzean! Muxuak familaren partetik. Asko maite zaitugu!



Yoli

Muxu handi bat, aitaren eta aiton-amonen partetik.



Maialen

Zorionak potxoli! 5 muxu handi Leire, aiton-amonak eta familaren partetik.



Iraia

Muxu handi bat gurasoen eta Alaine-ren partetik. Ondo pasa.



Oihan

Zorionak zure lehenengo urtebetetzean! Osaba izeben partetik. Muxu handi bat!



Ane

Zorionak printzesa, zure 6. urtebetetzean, aita, ama eta Enekoren partetik! Muxu handi bat!



Ander

Zorionak eta muxu mordo bat gurasoak eta aiton-amonen partetik.



Aitor

Zorionak! Zure anai, osaba izeba eta zure lehengusu unaren partetik!



Julen

Zorionak eta muxu handi bat, gurasoak, Alex, Naroa eta aiton-amonak.



Alex eta Naroa

Zorionak bikote, aita-xo-amatxo, Julen eta aiton-amonen partetik.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua ... 943 376184
Kirolegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxe bat saltzen da Alesancon (Ezcarayren ondoan) lorategiarekin, igerileku eta gune komunak. Harremanetarako telefonoa 676 910 566.

• Lokala alokatzen da, 35 m2koa Zabaleta auzoan. Tel.: 686 234408

• Pisua salgai Iruran. 3 gela, kumuna, sukualdea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Bero-gailua eta armairu enpotratuak ditu. Harremanetarako telefono zenbakia: 695 785 153.

• Gela bat alokatzen da Lasarte-Orian etxe partekatu batean. Harremanetarako telefonoa: 600 612 085.

Salerosketak

• Txirrinda, txistua eta 50 litroko akuario bat saldu nahi ditut. Harremanetarako zenbakia, 943 372 752 (Gauze deitu)

Oharrak jartzeko:

txintzarri@txintzarri.info • www.txintzarri.iragarkilaburak.com • Tel.: 943 366858

Guardiak

Astelehena, 3

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astearte, 4

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 5

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 6

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Ostirala, 30

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Larunbata, 1

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 2

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Jaiotzak

Izar Tamayo
Limia, apirilaren 25ean
Asher Barreiro Durán, apirilaren 21ean
Erik Pérez Durán, apirilaren 21ean
Iris-Naiara Alvarado, apirilaren 20an
Iria Touriño Osa, apirilaren 20an
Danel Martikorena Uzkudun, apirilaren 14ean

Izaro Iturriza Irazusta, apirilaren 13an
Naroa Iturriza Irazusta, apirilaren 13an
Iraia Extegia Pérez, apirilaren 12an

Heriotzak

Jesusa Aguirrebeitia
Zuazu, apirilaren 26ean 98 urte zituela

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarrirek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Esne gaingabetua makinan

Zerbitzu hau eskaintzen duen lehenengoa da



Esne gaingabetuaren zerbitzu berria eskainiko den egunen berri ematen du enpresak, makinan jarri dituen oharretan.

Asko dira gure herrian egunero Dorre parke inguruan dagoen makinara hurbildu eta esne freskoa hartzen dutenak. Lehengo asteartetik aurrera gainera, makina honek esne gaingabetua eskaintzen du. Era honetara, zerbitzu hau eskaintzen duen lehenengo herria dugu Lasarte-Oria.

Mahala enpresak urtarrelean jarri zuen martxan eguneroko esnea eskaintzen duen makina gure herrian eta asteartean zerbitzua zabaldu zuen, esne gaingabetua zerbitzatzeko hasiz.

Zerbitzu berri hau kontsumitzaileen eskaerari erantzunez jarri dutela adierazi dute Mahala enpresako arduradunek, "makina hauetan, esne freskoaren zaporea dastatu nahi dutelako eguneroko esnearen elikapen baloreei uko egin gabe baina koipe kantitate gutxiagorekin."

Esne freskoa eta gaingabetua, beraz. Izan ere, "esne osoaren zentrifugazio bidez gaingabetu prozesua egin eta baserriko esne freskoaren zapore nahastezina mantentzen du azken produktuak" azaldu dute enpresako arduradunek.

Egunak eta ordutegia

Esne gaingabetua ez da egun guztietan eskuragarri izango Lasarte-Oriako makinan.

Hasiera batean, Mahala enpresak jakinarazi duenez, esne gaingabetuko zerbitzua, astearteko 20:00etatik osteguneko 18:00ak arte egongo da martxan.

Eta esne osoa hartzeko, berriz, osteguneko 18:00etatik astearteko 20:00ak arte, egongo da aukera.

Beraz, badakizue, esne freskoa, eguneko eta gaingabetua hartu daiteke jada herriko esne makinan. •

Sendabelarren ikastaro arrakastatsua

Egun paregabea izan zuten lehenengo larunbatean Ttakunek antolatutako sendabelarren ikastaroan, Nekane Martiarena oiartzuarrekin batera Lasarte-Oria inguruko zelaietan sendabelarrak ikusi eta ezagutzeko batu ziren 24 herritarrek.

Irteera eta bazkaria

Ikastaroaren arduradunak adierazi digunez, "Zubieta aldera egin genuen eta bidean zeuden belar ezberdinak ikusi eta berezkat garrantzitsuak diren hamar azaldu zizkigun Nekane. Beti ikusi ditugunak dira, hala nola, zaingorria, pulmonaria edo biribelarra, intxusa, bostorria, iodo-belarra edo azeri-buztana."

"Belarren erabilerari dagokionez, esate baterako, bostorriari ahoko zauriak sendatu eta beheakoa mozteko balio du, zaingorriak odol isuri txikiak mozteko eta azeri-buztana mineralak berreskuratu eta pixa egiteko," azaldu digu.

Honetaz gain, ikastaroa

partehartzailea izan zela, azpimarratzen du, "Nekane galderek egiteaz gain, erremedioak eta gomendioak elkar trukatzeko zitzuzten guztiek, baita belarrak erabiltzeko modu ezberdinak ere."

Irteeraren ostean, bazkari prestatu zuten bildutako belar batzuekin. "Entsaladari, diente de león bota genion, osin tortilla egin genuen eta azeri-buztana eta osin ura probatu genituen" azaldu du

Jarraipena eman

Irakurketa ona egiten dute antolatzaileek ikastaroari buruz, "ikasleek asko eskertu dute honelako ikastaroa egitea eta are gehiago, Nekane bezalako aditua eskura izatea."

Horregatik, sendabelarren ikastaroari jarraipena emateko konprometua hartu dute Ttakuneko arduradunek, "ikastaro gehiago egingo ditugu beste belar batzuk eta haien erabilerak ezagutzeko." •



Arg.: Juanjo Erauskin

Hainbat belarren erabilera ezagutu zuten, Nekane Martiaren eskutik.

LAB sindikatuaren deia, Maiatzaren 1ean aldaketa politiko eta soziala aldarrikatzeko

LAB sindikatuak, Maiatzaren Lehen delata eta, oharra helarazi du *Langileon borroka, aldaketaren indarra* lempapean Donostiako Bulebarretik, 12:30ean, irteerako den manifestazioan parte hartzeko deiarekin.

Sindikatuak aurtengo Maiatzaren lehenengoa eguneko egoerak markaturik datorrela azpimarratzen du oharrean, "alde sozio ekonomikoak krisiaren erdian gaude, murrizketa, erreforma eta botere ekonomikoaren erasoaren artean. Bestetik, aldaketa politikoari bultzada emateko fasean hartu gaitu." Egoera honek eskualdean eragin zuzena izan duela eta krisia langileok eta herritarrok ordaindu dutela adierazten du sindikatuak.

"Krisialdiak, enpleguan eragin handia du. Buruntzaldean langabetu kopuruak azken bi urteetan %65 egin du gora. 4.254 langabetu daude, hauek %25 industria sektorean,

%11 eraikuntzan eta %56 zerbitzu sektorean.

Horietatik, %36a, 35 urte gutxiago duten langabetuak dira eta %57 emakumeak," aipatzen du LABek oharrean eta "eskualdeko lan munduan, prekarietatea gehien emakumeek eta gazteek sufritzen dutela," ondorioztatzen du.

Hitzarmenen negoziaketa

Honetaz gain, Gipuzkoan negoziatzen ari diren hainbat hitzarmen garrantzitsuak, Adegik sektoreko hitzarmenak baliorik gabe utzi eta negoziazio eredu aldatzeko asmoa duela salatzen du sindikatuak.

Testuinguru honetan enpleguaren defentsaren alde agertzen da LAB. "Eskualdeko enpresa ezberdinetan espedienteak eta kaleraketak egon dira eta langileok aurre egin diote mobilizazio eta salaketaren bidez," adierazten du.

Era berean, diskurtso nagusiaren aurrean aberasta-

suna egon badagoela eta honen banaketa justua aldarrikatzen du.

Honetaz gain, krisitik atera ahal izateko, lan erreforma berrien mehatxua gertu dagoela eta horien helburu bakarra enpresen irabaziaz langileen kontura berreskuratzea dela salatzen du LABek, "krisialdiak baliatzen dira lan harreman eredu prekarizatzen joan ahal izateko."

Langileen beharrak kontuan hartzeko sakoneko aldaketak behar direla nabarmentzen du sindikatuak, "aldaketa politiko aldarrikatzea ezinbestekoa izango da aldaketa sozialak burutu ahal izateko. Maiatzaren Lehenak langilearen gehiengoak nahi eta behar duen benetako aldaketa politiko eta soziala aldarrikatzeko konpromiso eta errebindikazio eguna izan behar du."

Eta manifestazioan parte hartzeko deiarekin amaitzen da oharra. •

Hnuy Illa ikuskizuna gaur kulturetxean

Lasarte-Oria Dantzan 2010 egitasmoari hasiera emango dio gaur, 20:00etan, Kukai dantza taldeak eta Tanttaka Teatroa konpainiaren *Hnuy Illa* ikuskizunak.

Joseba Sarrionandiaren *Hnuy illa nyha majah yahoo (Ondo zaindu beti, Yahho maitea)* liburuan bildutako poemetan oinarritutako dantza ikuskizuna da gaur ikusi ahaliko dena.

Poesia, dantza, irudiak eta musika elkarrekin izango dira agertokian, elkar hartuta eta elkarren artean komunikatuta.

Hala ere, dantza da ikuskizunaren ardatza; euskal dantza tradizionala, joera garaikideekin uztartuta. Eta honetan, Kukai dantza taldeak, Maider Oartzabal lasarteoriatarren laguntza izan du.

Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren antolatutako Dantza Garaikidearen Zirkuituaren seigarren edizioaren barne dago ikuskizuna.



“Asko dugu egiteko, baina bidean goaz”

Presoen aldeko itxialdian egindako hausnarketa argitaratu du herriko komiteak

Lehenengo asteburuan, larunbat gauek igande goizera euskal presoen aldeko itxialdia egin zen San Pedro elizan. Hitzaldiak, eskutitzen irakurketak eta bideo emanaldia egin ziren presoei elkartasuna erakutsiz. Ekitaldi horren irakurketa baikorra egin du Lasarte-Oriako presoen komiteak “Asko dugu egiteko, baina bidean goaz” izenarekin herritarrei jakinarazteko helarazi digun oharrean.



Hitzaldiak, bideo emanaldia, presoen eskutitzak eta solasaldiak egin ziren lehenengo asteko presoen aldeko itxialdian.

“12 orduko itxialdia, 7 hizlari eta 5 hitzaldi, 9 ordu hitzaldi eta solasaldietan, 50 pertsonatik gorako parte hartzea eta 13 pertsona oso gogoan,” horiek dira presoen komiteak itxialdira buruz ematen dituen datuak.

Era berean, itxialdian bizi-takoaren “sentsazioak” ere azaltzen dituzte oharrean, “Gauaren hasieran etorkizuna izan genuen aho eta belarrietan. Euskal Herriaren etorkizuna, nola eraiki eta nondik jarraitu orain artean egindako lanari. Ezker abertzalearen eztabaida sakonak eman beharreko fruitua eta internazional mailan egin beharreko lana.”

“Euskal Herria subjektu gisa errespetatzen ez duten bi estatuen jarrera zapaltzailea azaldu zen eta Hego Afrika eta Irlandako kasuetatik joan etorria egin ostean galdera batek eman zion itzulia elizari, ba ahal da Espainiar zein Frantziar estatueta konponbiderako pausua emateko

prest legokeen agintaririk?,” diote oharrean.

Etorkizunetik, Irlandara egin zuten salto, “irlandar prozesuan preso politikoei egindako garrantziak bihotza bera ere ederki hunkitu zigun. Espetxeetako borrokak, estatus politikoa izatearen garrantziak eta batez ere gizartearekiko hurbiltasunak.”

Elkartasuna eta amnistia

“Elkartasuna ere hizpide izan zen, eta gure itxialdiak gorkada jasan zuen, eliza barruan larunbat gaua pasatzeari zentzua hartu genion,” azpimarratzen dute. “Senideen sufrimendua, sakabana-keta politika, espetxeetako jipoiak, bizi osoko espetxe zigorra, tortura eta espetxe politika doilorra lehen eskutik entzun eta jasotzeko parada izan genuen,” azaltzen dute

“Gauaren berotan, 77ko amnistiaren tranpa eta azpiko-koa zelakoa izan zen ikustera heldu ginen. Amnistiaren aurretik faxismoaren aldekoak

bat batean lehen mailako demokrotak bilakatu ziren, espetxeak euskal herritarrez betetzen hasi ziren, frankismoak hautaturiko agintaria jarri zen estatu buru eta frankismoak eragindako hildakok ahaztura batean geratu ziren,” jakinarazten dute.

Horregatik, “elizatik lau haizetara zabaldu nahi izan genuen horiekiko gertutasuna, ez ditugula ahaztu errepide bazterrean lurperaturik diren herritarrak eta dudarik gabe orduan gertatua gizateriaren aurkako krimena izan zela,” adierazten dute.

“Gaua amaitzeaz eta azken

50 urteak gogoan. Txiki eta Otaegi, Burgosko katedraleko ikurrina, Carrero, grebak, borrokak eta Euskal Herria zutik dela gogoan izateko irakasbide bat. Denbora labur 50 urteak laburtzeko, izan direlako gara ordea, bai horixe,” diote.

Azkenik, Euskal Herriko langilearen egoera aztertzen izan zuten itxialdian. Eskuak ez direla derrigorrez zikindu behar langile izateko. Gizartearen %80a, gehiago zabalda, soldatapeko langileak direla eta noski agintea %20 horren eskutan dagoela salatzuten dute..

“Honela, bizi dugun krisi garai hauetan inoiz baina argiago esan ahal dugu, herri honetan benetako aldaketa langileek boterea hartzearekin etorriko dela. Aldaketa sozial eta politikoa. Ezkerretik erakirik herria,” diote hausnarketan.

Eta aste honetako berri onarekin ematen diote amaiera komunikatuari, “honela, larunbat gaua eta igandeko ordu txikiak, astelehena ordea ekarri du berria, eta gure artean da Rafa Diez. Ongi etorri Rafa eta izan bitez horrelakoak astelehen guztiak.” •

Rafa Diezen askapenari buruzko argibideak eman ditu Udalak

Azalean azaldu dugun bezala, Rafa Diez aske uztearen arrazoiatariko bat mendekotasun egoeran dagoen ama zaindu beharra izan zen. Lasarte-Oriako udalak benekotutako ziurtagiri baten eraginez neurri leungarriak ezarri zizkionela agertu zen komunikabide askotan. Atzo, herriko udalak bidalitako komunikatu baten bidez informazio hau argitu nahi izan zuten.

Lehenik eta behin, Lasarte-Oriako udalak azaldu nahi du, momentu honetan eta mendekotasun Legearekiko zainkarako eskakizun-tramiteei dagokionez, eskatzailea, Rafa Diezen ama lehenengo fasean aurkitzen dela. Hau da, gizarte langilearekin ego-

teko deialdia eskatu eta hitzordua ezarri zaiola.

Jarraitu beharrekoak

Gizarte langilearekin egoteko eguna iristen zaionean, dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, bere egoera egiaztatzen duten medikuaren informea barne. Momentu horretan, gizarte langileek espeditentea martxan jarri, eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko dute. Azken hauek izango dira Mendekotasun Legearen laguntzaz baliatzen beharrezko baldintzak betetzen dituen. Horretarako, Aldundiko tekniko eta mediku bat eskatzailearen etxebizitzara joango dira balorazioa egiteko asmoaz.

Honen arabera, Diputazioak erabaki edo ebartziko du, eta orduan espeditentea Udalera bueltatuko da, eurek jarraipena egin dezaten.

Udalaren argipena

Beraz, informazio honen bitartez herriko Udalak argi utzi nahi du momentu hauetan ez dagoela Rafa Diez Usabiaga, LABeko idazkari orokor ohiaren amaren mendekotasun Legearekiko zainketa espeditentirik irekita.

Fiskalaren helegitea

Atzo bertan jakin genuen Vicente Gonzalez Mota, Espainiako Auzitegi Nazionalako Fiskalak, Rafa Diez, LABeko idazkari orokor ohi



Arg.: Josu Agirretxe

Rafaren askapenerako argudioak zalantzan jarri ditu Gonzalez Mota Fiskalak.

aske utzi izanaren erabakia-aren aurkako helegitea aurkeztu zuen.

Azaldu dugun bezala, Baltasar Garzon epaileak espetxeratua mantentzeko neurriak leundu zizkion ama zaintzeko beharra argudiatu. Fiskalaren arabera, Rafa Diezen

defentsak argudiatutako arrazoia artifiziala da, are eta gehiago, Rafak gezurretik sortutakoa. Horretan oinarrituta, Auzitegi Nazionalari Rafa berriro espetxeratzeko eskatu du. Eskatera horri buruzko erabakia hartu beharko du Auzitegiak orain. •

Dantza topaketa berezia egingo da maiatzaren 8an *Lekuona Hotelean*

Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa Lekuona Hoteleko harrera-leku bilakatuko da, Ttakun elkateak eta Bertso eskolak urtero antolatzen duten Udaberriko bertso saioan

Duela bi urte, Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren herritarrek bidai berezi baten lekuko izan ziren. Iaz, berri, mundua konpontzeko tailerlean sartu ziren ikusteak bertako istorioak entzuteko. Aurten, Lekuona Hoteleko harrera lekua ezagutuko dute, Ttakunek eta Lasarte-Oriako Bertso Eskolak, Udalaren laguntzaz, antolatzen duen udaberriko bertso saio berezian.

Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa Lekuona Hotelaren harrera-leku bilakatuko da, maiatzaren 8an, 22:00etatik aurrera.

Hotel horretan dantza Topaketa batzuk ospatuko dira eta dantza talde ezberdinak hoteleko harrerara doaz giltzen bila.

Dantza estilo ezberdinetako taldeak dira gainera. Batzuk sabel-dantza egiten dute, besteek tangoa, talde bat dago euskal folklorea egiten duena, beste batzuk dantza garaikidea eta sevillanak dantzatzen dituen taldea ere aurkeztuko da Topaketa berezi hauetara.

Era berean, Andoni Egaña, Xabi Paya, Unai Muñoa eta Ane Labaka bertsolariak harrera lekuaren ondoko

tabernan daude eta bertatik ikusten duten guztia azalduko dute modu ezberdinetan.

Eta, hau guztiaz gain, antzerkiak eta musikak bere artea izango dute.

Bertsoa eta kultur espresioa

Bertso saio berezi hauek bi helburu nagusi dituztela azaldu digute antolatzaileek. "Bertsolaritza modu errazean eta entretenigarrian hurbildu nahi diegu gazteei, euskara ikaste prozesuan daudenei eta bertso zaletasunetik urrun daudenei," aipatu dute.

"Beste kultur diziplinekin nahastuz, bertsoa eta bertsolaritzaren potentziala ezagutaraztea da asmoa," adierazi dute antolatzaileek.

Eta, era berean, "herrian dauden kultur espresio ezberdinak ezagutzeko modua ere bada" azpimarratu dute.

Horregatik, bertso saio honetan esperimentazioa, elkarlana eta nahasketa dira nagusi.

Era berean, "antolakuntzak lortzen duen partaidetza, elkarlana eta herriko elkarten arteko ezagutza," azpimarratu dute.

Bertsolariak, Lasarte-Oriako antzerki eta dantza eskola, Erketz D.T., Semblante Andaluzekeo *Gitanillos del Alba* eta

Duende Flamenco taldeak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Udal Musika eskola, *Xumela* korua, Errenteriako *Danza-rin* taldea eta Aitor Lasa soinu jotzailea dira aurtentzen Lekuona Hotela ikuskizuneari parte hartuko duten talde guztiak.

Sarrerak

Hotel berezi honetako harrera gelara sartu eta gertatzen dena jakin nahi duenak, beraz, hurbil dadila Manuel Lekuona kultur etxera eta sarrera eros dezala. Asteleheneretik aurrera egongo dira salgai kultur etxean. Sarreraren prezioa 3 eurotako da.

Ez galdu aukera eta maiatzaren 8an, 22:00etatik aurrera, Lekuona Hoteleko dantza topaketa bereziaz gozatu ezazu. •



Lekuona Hoteleko harrera lekuak bisitari ugari izango ditu bertso saioan zehar.



Iaz antzerkiari eman zitzaion garrantzia, aurten dantza eta bertsoa izango dira nagusi Lekuona Hoteleko harrera gelan.

Beste kultur diziplinekin nahastuz, bertsoa eta bertsolaritzaren potentziala ezagutaraztea da asmoa



ANAIAK

JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

Kirolak agenda

FUTBOLA

Larunbata 01

10:00etan, Ostadar-Kostkas M.B. (I. Jubenila, kopa) Ubitarte, Andoainen.

12:30etan, Lagun Onak-Ostadar (I. Kadetea, igoera fasea) Garmendipe, Azpeitia.

13:30etan, Internacional-Ostadar (Partehartze infantilak, kopa) Matigoxotegi, Donostian.

15:30etan, Mariño-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Ugalde-Ventas, Iruen.

18:00etan, San Patrizio-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) Puio, Donostian.

Igandea 02

09:30etan, Ostadar-Spoting de Herreraa (Infantil Txikiak, txapelketa fasea) Harane, Usurbilen.

09:45etan, Ostadar-Tolosa (Alebinak, Txapelketa fasea) Michelinen.

11:00etan, Ostadar-Amara Berri (Erregional Gorena) Michelinen.

11:00etan, Ostadar-Euskalduna (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Harane, Usurbilen.

12:45etan, Texas Lasartearra-Uda Arizmendi (I. erregionala, kopa) Michelinen.

17:00etan, Ordizia-Ostadar (Emakumezko Liga, kopa) Altamira, Ordizian.

FUTBOLA 7

Larunbata 01

19:15etan, Spartak de Obelix-Otzarreta Harategiak (III. maila) Matigoxotegi, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 30

20:20etan, Aldaz H.K.-Euskalduna (Nazional B maila) Kiroldegian.

Larunbata 01

10:00etan, Ignacio Hondarribia taberna-ISU Leihoak (Gipuzkoako liga, I. maila) Hondartza kiroldegia, Hondarribia.

JUDO

Larunbata 01

Goiza osoa, LOKE Esteban Martinezek Kadete mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du, Salamancan.

ATLETISMO

Igandea 02

10:30etan, Landaberriko gazteek Infantil mailako proba konbinatueta Gipuzkoako txapelketa den Eneko Castro !0. urteurrena proban parte hartuko dute, Michelingo atletismo pistan.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 01

16:30etan, Bazpi Txirindulartza eskolako gazteak Andoaingo Sarian proban parte hartuko dute, Andoainen.

Igandea 02

8:30etan, Ostadarreko zikloturista taldeak Gabiriara egin dute irteera.

16:00etan, Bazpi Txirindulartza eskolako jubenilek Santa Cruz proban parte hartuko dute, Seguran.

PILOTA

Igandea 02

10:00etan, Lasarte Oriarri-Astigarra (Herriarteko txapelketa) Michelingo pilotalekuan.

SQUASH

18:00etatik aurrera, kiroldegian Ostilara 30

Mikel Zugasti-Javier Serrano Patxi Delgado-Aitor Artola

Astelehena 03

Agustin Erkizia-J. R. Urruzola Alberto Udabe-Iñaki Garcia

Asteartea 04

Iker Serrano-Joaquin Peña Raul Mateos-Fernando Montero

Asteazkena 05

Javier-Serrano-Emilio Hernandez Aitor Artola-Oswal Cañedo

Osteguna 06

J. R. Urruzola-Mikel Zugasti Iñaki Garcia-Patxi Delgado

BOLA-JOKOA

Igandea 02

Egun osoan, Ostadarreko bola joko taldeak Gipuzkoako kopa txapelketan parte hartuko du, Olaberrian.

Lasarte-Oriak aurrera egin du eskupilotako herriartekoan

Etxean 1 eta 2 galdu ostean, Lasarte-Oriak Sorluzen buelta eman zion kanporaketari

Lasarte-Oriako taldeak buelta eman zion lehengo ostiralen pilotako herriarteko kanporaketari.

Aurreko astean, Michelingo frontoian kadete mailan, partidua berdindu izan zen. Hala ere, ez zuten zorterik izan txikiak eta 9-22 galdu zuten. Gazteak ere oso ongi aritu ziren eta 22-2 irabazi zioten Sorluzeko bikoteari. Seniorrek, ordea, ez zuten egun ona izan eta 6-22 izan zen azken emaitza.

Gauzak honela, Lasarte-Oriak eronka handia zuen Sorluzen 1 eta 2koari aurre egin behar baitzion.

“Izan ere, Sorluzeko bikote batzuk ez genituen ezagutzen eta ez genekien zer gertatuko zen Lasarte-Oriari,” aipatu digu Jose Felix Solano taldearen arduradunak.

Hiruna berdindu

Hala eta guztiz ere, Lasarte-Oriako taldeak ongi erantzun zuen eta Sorluzen 2 eta 1 gailendu zen.

“Kadeteetako partida zaila izango zela zirudien, baina gure gaztetxoek ongi jokatu eta erraz irabazi zuten, 6-22. Junior mailan Lasarte-Oriako emaitza errepikatu zen, gure aldekoa eta seniorrek, partida ona egin zuten, nahiz eta galdu,” azaldu digu Lasarte-



Sorluzeko kadeteen partidaren egon zen herriartekoan aurrera egiteko gakoa.

Oriako arduradunak eta “Sorluzen beste irudi bat eman genuen eta Lasarteko tristura kentzeko balio izan du,” atxiki zuten.

Era honetara, kanporaketa hiruna berdindu zuten taldeek, baina kadeteetako tantoak kontuan hartuta, Lasarte-Oriak hiru tantoko errenta izan eta, era berean, final zortzirenetarako txartela eskuratu zuten.

“Kadeteetan ez genuen espero hainbesteko errenta ateratzea eta horri esker, pasa gara hurrengo partidara,” azpimarratu zuen Joxe Felixek.

Hurrengo arerioa

Astigarragaren aurka jokatuko

dute lasarteoriarrek final zortzirenetan, igandean 10:00etan Michelingo pilotalekuan.

“Kanporaketa berdindu izango da,” aurreratu digu Jose Felixek.

“Jokalariak eta bikoteak ezagutzen ditugu. Honela, kadeteetan, partida berdindu espero dugu. Gazteetan, Astigaragak irabaziko du ziurrenik, bikote hobea baitu eta seniorretan irabazteko aukera asko ditugu,” aipatu du.

“Gure ustez, gakoa kadeteetako partidaren egongo da. Hala ere, igandean partidak jokatu ostean, ikusiko da gure irakurpena ona den edo ez,” adierazi du Lasarte-Oriako arduradunak. •

Helduentzako irristaketa ikastaroa antolatu du Ostadarrek

Eguraldi ona iritsi da eta haur ugari ikusten da gure herriko kaleetan patinetan. Helduak, ordea, gutxi dira. Horregatik, Ostadar K.F.ak helduentzako irristaketa ikastaroa antolatu du maiatzaren 15 eta 22an.

Ikastaroa arratsaldeko 16:00etatik 18:00ak arte izango da eta “zerotik hasiko da,” azaldu dute antolatzaileek.

“Jendea gustura badago ikastaroa luzatuko da” ere, aurreratu dute.

Patina eta babesak bakoitzak bereak eramango ditu eta “babesak eramatea beharrezkoa da”, azpimarratu dute.



Zerotik hasiko da Ostadarrek antolatutako helduentzako irristaketa ikastaroa.

Informazio gehiago eskuratzeko Ostadarreko egoitzara, Geltoki kalea 25, hurbildu behar dira interesatuak.

Ikastaroaren prezioa 15 euro dira eta izena emateko epea maiatzaren 7an bukatzen da. •

Kirolak oharrak

Kiroldegia eta kirol gunea itxita

Lasarte-Oriako udal kirol instalazioak larunbatean, maiatzaren 1ean, itxita egongo dira. Nahi izanez gero, abonatuak Andoain eta Usurbileko kirolak udal instalakuntzak erabiltzeko aukera izango dute, goizez. Andoain (943-300147) eta Usurbil (943-372498)

Egunero

Erakusketa

SU LAZTANAK, Garikoitz Lasaren egurrean egindako pirograbatutako ikusgai Jalgi kafe-antzekian.

Ostirala, 30

Dantza

HNUY ILLA dantza ikuskizuna Kukai Tanttaka taldeen eskutik. Sarrera 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan. **EUSKARAZ**

Asteazkena 5

Hitzaldia

VIVIR LA UTOPIA bideo emanaldia eta ondoren hizketa-etzabaida XABIER ERAUKIZKIREN eskutik egongo da CNTko ehungarren urteurrena ospatzeko. Manuel Lekuona kulturetxean 18:30ean.

Osteguna, 6

Hitzaldia

Gatazka bat sortu da eta helduok zer egiten dugu? hitzaldia eskainiko da Josune Martiarenak Udaleren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.



Cesk Freixas kataluniarra eta Makulu Ken herritarrak Xirimirin

CESK FREIXAS bakarlarri kataluniarrak eta MAKULU KEN talde lasarteoriarrak kontzertua eskainiko dute Xirimiri elkarrean. Talde kataluniarra bira egiten ari da Euskal Herrietik. Bi taldeek reggae, afrikako funky, afrobeat... erritmoekin gozatzeko aukera paregabea.

APRILAREN 30EAN, OSTIRALA
XIRIMIRI ELKARTEAN 22:00ETAN

Oharrak

Etzeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etzerate kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Langilearen eguneko manifestazioa

Lasarte-Oriako CNT-kideek deialdi honen bidez, Lasarte-Oriako langileria animatu nahi dugu Maiatzaren leheneko manifestazioan parte hartzera. Manifestazioa Donostiako Bulebarretik aterako da 12:00etan eta ondoren mitina egingo da.

Era berean, 14:00etan, bazkara antolatu dugu. Parte hartu nahi baduzue deitu 943 472 687 zenbakira, astearte, asteazken edo ostegunean 19:00etatik 21:00etara.

Sorosle ikastaroa Usubilen

Maiatzaren 3tik 21era sorosle ikastaroa antolatu du DYA erakundeak Usubilen. Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara eta astelehenerik ostiralera izango da ikastaroa parrokiko lokalean (Kale Nagusia 25). Informazioa eta aurreinskripzioa 943 464622 telefonon.

Zabaletako festak

Zabaletako Auzo-elkarteak ekainaren lehenengo astean, ekainaren 2tik 6ra antolatuko ditu Zabaletako festak. Hauek antolatzeko asteartero, 19:30ean, Antonio Blas plazan bilera egingo dela jakinarazten du auzo elkarrean.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek daukatala jasota, urrezko eskumuturrekoa, diru-zorroa, urrezko

katea, zilarrezko zintzilakarioa, Festina markako eskumuturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa, zilarrezko belarritakoak, Alcatel markako mugikorra, belarritako beltza eta doratua, bi betaurreko graduatu eta betaurreko graduatuak bere estutxean.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

60ko kinto afaria

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kintoen afaria. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5ean izango da. Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutxako 21010048200012568275 kontuan sartu behar da. Informazio gehiagorako interesatuek 943 370980 telefonora deitu (Maria Luisa).

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarrean antolatzen duen marrazketa eta margo eskolak jakinarazi nahi du maiatzaren 1ean eskoliek ez dagoela kulturetxea itxita dagoelako. Bestalde gogorarazi nahi du plazak badaudela eta izena emateko kulturetxeko 2. solairura jo behar dela.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era
Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Liburutegiko ordutegia



Manuel Lekuona kulturetxea

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Astelehenerik ostiralera

10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal proposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitzak

MusikHerriaren oharra, Euskalgintzari, Euskal Kultur sorkuntzari eta orohar euskal jendarte osoari

Euskal Herrian azken hilabete hauetan bizitzen ari garen egoerak ez dira salbespen kultur sorkuntza munduan gabiltzan eragileekiko. Ilusioz eta arduraz ikusten ari gara etorkizunerako normalkuntza egoera ahalbideratuko duen herri antolakuntza olatu, Estaturen partetik erasoak aurrera darraien arren, oso modu gogorrean azken aste

hauetan.

Azaltzera goakizuen kasua MH osatzen dugun hainbat eta hainbat kideetako batek aste honetan pairatu beharko duen gertaera bat da.

Ibai Azkona gazte iruindarra kutxazain baten aurkako balizko eraso baten karira epaitua izan da, urtebeteko kartzela zigorra betetzera behartzen duelarik Espainiar sasi justiziak. Aurretik ere gaueko ordu txikitan atxilotua izan zen Euskal gazteriarren aurka tamalez jada hain ezagun zaizkigun razzia polizia horietako batean, eta hainbat hilabetez kartzelara-

tua izan zen, gerora orduan epaitzen zuten delituengatik absolbitua izan zelarik. MHko kide hau espetxeratze-ko arrazoia bat eta bakarra da: Espainiar justiziaren aburuz Ibai kalean izatea *arriskutsua* ei da, eta horregatik sartu nahi dute beste urtebeteko espetxean.

MusikHerria kolektiboa osatzen dugun musika eragileok salaketa ozena eta gure haserre jendarteratu nahi dugu mendekuzko ekintza honen aurka. Batetik, kalte materialak sortu zituen ekintza batengatik kartzela zigorra betetzea ez dugu zilegitzat jotzen, eta are

gehiago lbairan kasuan aurretik dagoen absoluzio egoeraren ostean. Era berean musikari moduan eta kolektibo moduan *Ibai Azkonak ez duela elkarbizitzarako inongo arriskurik* planteatzen adierazi nahi dugu ezen, ez bada astebururo bere taldearekin eta kitarra aldean duela egin dezakeen kaltea, alegia Euskal musika sorkuntzan, jai herrikoietan eta herri mugimenduko era askotako dinamizketan parte hartu eta sakontzea.

Gure herrian haize berri eta ilusio zahar-berriak arnasten dihardugun honetan, euskal sortzaile, euskal-

tzale, musikari eta orohar kasuarekin minduta agertzen den norbanako orori zuzentzen gaitzazkio ibairen kasuaren kontrako atxekimendu kanpaina sina dezaten eta ahal duten einean kasua beren inguruko komunikabide, lagunarte eta informazioa zabaltzea ahalbidera dezakeen bitartekoetan zabaltzea. 7 egun besterik ez dira falta ibai kartzela sartzeko una heldu aurretik, sala dezagun ozen!!

Gure elkartasunik beroena Ibai eta SKATU! Taldeari, aurrera bolie!!

MusikHerria

IZARRA BITXITEGIA



Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY[®] A.I.E.

